# 9 Soles. 9 Eguzki

# 16/07 - 27/08

| DESTINO / NORABIDEA | PUERTA / ATEA | VUELO / HEGALDIA |
|---|---|---|
| Helsinki | B33 | VL903 |
| Viena | C06 | DH572 |
| La Luna | A28 | AE608 |
| Praga | A05 | KL394 |
| Atenas | C14 | IB253 |

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
AGENDA 2030
MUSEOA NAFARROAKO DE NAVARRA

# Vacaciones en la Luna 2025

En la edición 2025 del programa 9 Soles buscamos visibilizar la naturaleza surrealista, abstracta, cíclica, fantasiosa y mágica de la creación artística.

El arte como vehículo para abstraernos de la realidad, de la objetividad y sus estímulos constantes en forma de datos, algoritmos y procedimientos. Creaciones que nos permitan tomar un respiro de este mundo que hoy nos asusta. Acciones que nos propulsen, como si de un cohete espacial se tratara, a viajar muy lejos y poder así tomar distancia para comprender, asumir y digerir esta avalancha de información con la que nos despertamos a diario.

La luna determina los días, los años, influye en las mareas y existen dudas más que razonables de que lo haga también en el equilibrio de todos los seres vivos en la tierra. La utopía de una evolución estática y controlada sustentada en hechos, sólidos como pilares de hormigón, contrasta poderosamente con los vaivenes irracionales que experimentamos en sociedad y como individuos.

¿Será lunático pensar que nuestra historia resulte ser mucho más ciclotímica que lineal?

La escritora norteamericana Sophie Strand en su ensayo “Species Lunation” indica que *“hace tan sólo 2000 años, las culturas seguían orientadas a los ciclos lunares. La temporalidad y los ciclos han estado presentes durante toda la historia de la humanidad. No obstante, la cultura actual confunde en muchas ocasiones la feminidad con la luna, lo lunático con la locura y el pensamiento cíclico como el opuesto de la ciencia, pero en realidad la luna nos pertenece a todos/as”. Y prosigue, “¿Qué es la sabiduría lunar? Incluso en una noche de luna nueva, la luna sigue presente: repleta, entera, aunque también vacía, ocluida. Es una plenitud que guarda tiernamente la pérdida dentro de su cuerpo. La luna es cinética. Te invita a disolver tus límites en lugar de afirmarlos”.*

En esta nueva edición de 9 soles, queremos dar sentido a la palabra ciclo. Buscamos disolver nuestros límites y entregarnos por unos instantes a la idea de cambio, a través de una visión surrealista y abstracta de la creación artística. Queremos soñar con un espacio que pare el tiempo y que nos invite a mutar, a transformarnos y a adoptar formas distintas. Os invitamos a tomaros un respiro vacacional y participar de siete acciones que lo único que tienen en común es ser completamente distintas.

Mikel Belascoain

# Oporrak Ilargian

2025

9 Eguzki programaren 2025eko edizioan, ikusarazi nahi dugu sormen artistikoak duen izaera surrealista, abstraktua, ziklikoa, fantasiazkoa eta magikoa.

Artea tresna bat da errealitatetik aldentzeko, objektibotasunetik eta haren etengabeko estimuluetatik (datuak, algoritmoak eta prozedurak) ihes egiteko. Sorkuntzek aukera emanen digute egun beldurtzen gaituen mundu honetatik atseden hartzeko. Espazio-ontzi batean bezala, oso urrun bidaiatzera bultzatuko gaituzte, distantzia hartu ahal izateko, goizero gainera datorkigun informazio-olde hori ulertu, barneratu eta digeritzeko.

Ilargiak egunak eta urteak zehazten ditu, mareetan eragiten du, eta zalantza nabarmenak daude ez ote duen eragiten baita Lurreko izaki bizidun guztien orekan ere. Bilakaera estatiko eta kontrolatuaren utopia, hormigoizko zutabeen gisako egitate sendoetan oinarritua, ez dator bat gizarteek eta gizabanakoek izaten ditugun gorabehera irrazionalekin.

Ilargiak jota gaude uste badugu gure historia askoz ziklotimikoagoa dela lineala baino?

Sophie Strand idazle iparramerikarrak “Species Lunation” saiakeran idatzi duenez, *“duela soilik 2.000 urte, kulturak ilargi-zikloen arabera aritzen ziren. Behin-behinekotasuna eta zikloak hor egon dira gizateriaren historia guztian. Hala ere, egungo kulturak askotan nahasten ditu feminitatea eta ilargia, ilargi-eria eta eroa, pentsamendu ziklikoa zientziaren kontrakotzat jotzen du, baina, egiazki, ilargia gu guztiona da”. Eta, jarraian, zera dio: “Zer da ilargiaren jakinduria? Ilberrian ere, ilargia hor dago oraindik: beteta, osorik, baina baita hutsik ere, okluituta. Osotasun horrek galera gordetzen du samurki gorputzaren barnean. Ilargia zinetikoa da. Bultzatzen zaitu zure mugak desegitera, berretsi beharrean”.*

9 Eguzki programaren edizio honetan, zentzua eman nahi diogu “ziklo” hitzari. Gure mugak desegin nahi ditugu, eta aldaketaren ideiari lotu une batez, sorkuntza artistikoaren ikuspegi surrealista eta abstraktu baten bidez. Denbora geldituko duen espazio batekin amets egin nahi dugu, zeinak aldatzera, eraldatzera eta beste forma batzuk hartzera bultzatuko baikaitu. Animatzen zaituztegu oporrak hartzera eta zazpi ekintza hauetan parte hartzera. Berdina duten gauza bakarra da erabat desberdinak direla.

Mikel Belascoain

# Las Power Puff Nenas

# 16 Julio

## Las Nenas

## Teatro contemporáneo / Performance



Las Nenas presentan una creación especial para 9 soles, acción que inaugura este ciclo en 2025. Ane Sagüés Abad y Cristina Tomás Olaya practican una forma radical de intrusismo profesional. Realizan las más profundas fantasías de rendimiento contemporáneas.

Pueden añadirse los adjetivos que se quieran a la descripción de su proyecto: artístico, transdisciplinar, performático, teatral, colectivo, inclusivo...

También las definen un millón de sustantivos: son creadoras, intérpretes, actrices, performers, directoras, productoras, docentes, guías espirituales, monitoras de ocio y tiempo libre, licitadoras de arte, marchantes, relaciones públicas, reporteras. A veces se manchan las manos. Si lo deseas, técnicas de sonido y de luces, pero también contemplativas. Utilizan la palabra “activación” y “artefacto”, en lugar de “muestra” u “obra de teatro”. A la cabeza de la vanguardia escénica. Les gusta ser aplaudidas. Lo más importante es que no saben hacer nada. Aun así, el público espera todo de ellas. “

# Las Power Puff Nenas

# Uztailak 16

## Las Nenas

## Antzerki garaikidea / Performancea



Las Nenas taldeak sorkuntza berezia aurkeztuko dute 9 Eguzki programan, 2025eko ziklo honi hasiera emateko. Ane Sagüés Abadek eta Cristina Tomás Olayak intrusismo profesional erradikala praktikatzen dute. Errendimenduaren fantasia garaikiderik sakonenak egiten dituzte.

Nahi diren adjektiboak jartzen ahal zaizkio haien proiektuaren deskribapenari: artistikoa, diziplinaz gaindikoa, performatiboa, antzerkizkoa, kolektiboa, inklusiboa...

Halaber, hamaika substantibok definitzen dituzte: sortzaileak dira, interpreteak, aktoreak, performerrak, zuzendariak, ekoizleak, irakasleak, gida espiritualak, astialdiko eta denbora libreko monitoreak, arte-lizitatzaileak, arte-merkatariak, harreman publikoetako langileak, berriemaileak. Batzuetan eskuak zikintzen dituzte. Nahi izanez gero, soinu- eta argi-teknikariak, baina baita kontenplatzaileak ere. “Aktibazioa” eta “artefaktua” hitzak erabiltzen dituzte, “erakusketa” edo “antzezlana” esan ordez. Abangoardia eszenikoaren buruan. Txalotuak izatea gustuko dute. Garrantzitsuena da ez dakitela ezer egiten. Hala ere, jendeak den-dena espero du haiengandik.“

# Lunaria

## 23 Julio

Andrea Jiménez, Edurne Ibáñez
y Rubén Fernández Aguirrre

Ópera / Diseño textil



Bajo la luz eterna de la luna, nace Lunaria, un viaje que fusiona la música con la moda. El recital se despliega en una atmósfera onírica guiada por la soprano que encarna a Selene, diosa griega de la luna, en el que el público atraviesa distintas fases emocionales que dialogan con el ciclo lunar. Obras de Schubert, Brahms, Lecuona, Albéniz, Liza Lehmman, Sorozábal o Antón García Abril se entrelazan en una narrativa que revela cómo la luna influye en los sueños, los afectos y el paso del tiempo.

El vestuario, concebido como parte esencial de la narrativa escénica, evoluciona con cada pieza, cada transformación de color, textura o forma refleja un aspecto distinto de la luna: la enamorada, la distante, la sombría… Lunaria no es sólo un recital, es una experiencia sensorial entre lo real y lo imaginado, que rinde homenaje a uno de los símbolos más antiguos y evocadores de la humanidad.

**ANDREA JIMÉNEZ (SOPRANO)**
La soprano navarra Andrea Jiménez inicia su formación musical de violín y canto en el Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona y prosigue en el Superior de Navarra, con la catedrática Carmen Arbizu, finalizando sus estudios con Matrícula de honor y Premio Fin de Carrera. Continúa su formación con Dennis O'Neill, Isabel Rey, Barbara Bonney, David Mason, Rubén Fernández Aguirre, Carlos Chausson, María Bayo, Raquel Lojendio y Maite Beaumont.

En 2016 recibe una beca de estudios de la Universidad de Berna (Suiza). En 2017 gana una beca extraordinaria del Gobierno de Navarra, y forma parte del Swiss Opera Studio de la Universidad de Berna, con la mezzosoprano Brigitte Balleys, al mismo tiempo que trabaja en el Theater Orchester Biel Solothurn en la temporada 2017/18, interpretando los roles de Brigitte en Iolanta de Tschaikovski; Valencienne en Die lustige Witwe de Lehár; Donna Elvira y Donna Anna de Don Giovanni de Gazzaniga, bajo las batutas de Vladislav Karklin, Alexander Anissimov y Jérôme Pillement. A su vuelta de Suiza debuta roles como Marzelline en Fidelio , Giannetta en L'elisir d'amore, Marina en Marina de Emilio Arrieta, bajo la batuta de José Miguel Pérez Sierra, en el Auditorio Baluarte de Pamplona, Belinda en Dido y Eneas en el Teatro Isabel la Católica de Granada, Serpina en La serva padrona en el Teatro Gayarre de Pamplona, Frasquita en Carmen, Annina en La traviata en el Teatro Campoamor de Oviedo y Adina en L'elisir d'amore en Teatre Principal de Palma de Mallorca.

Entre sus últimos trabajos destacan colaboraciones junto a la BOS, (Orquesta Sinfónica de Bilbao), a la OSN (Orquesta Sinfónica de Pamplona) y la Banda Municipal de Bilbao en el festival Musica/Musika y su debut del rol de Mari-Eli en la nueva producción de Calixto Bieito de la zarzuela Mari-Eli de Jesús Guridi en el Teatro Arriaga de Bilbao.

# Lunaria

## 23 Julio

## Andrea Jiménez, Edurne Ibáñez y Rubén Fernández Aguirrre

## Ópera / Diseño textil

**RUBÉN FERNÁNDEZ AGUIRRE (PIANO)**
Nace en Barakaldo (Vizcaya). Discípulo de Félix Lavilla se especializa en acompañamiento de cantantes en Viena y Munich y recibe los consejos de Wolfram Rieger.

Pianista habitual de cantantes como Lisette Oropesa, Ermonela Jaho, Carlos Álvarez, Sabina Puértolas, Nuria Rial, Ismael Jordi, Jose Antonio López, Vanessa Goikoetxea, Miren Urbieta,… Ofrece recitales con Sonya Yoncheva, Javier Camarena, Sara Blanch, David Menéndez, Hera Hyesang Park, Maite Beaumont, También ha actuado junto a Mariella Devia, Ainhoa Arteta, María Bayo, entre otros. Actúa en la mayoría de Teatros y Festivales españoles, así como en la Staatsoper y el Musikverein de Viena, ROF de Pesaro, Savonlinna y Bregenz Festival, Sala Tchaikovsky de Moscú, Smetana Hall de Praga, Opernhaus Zürich, Gulbenkian de Lisboa, Budapest Opera, Carnegie Hall de Nueva York, Seul Arts Center, Teatro Solís de Montevideo, Usina del Arte, CCK de Buenos Aires,…

Ha sido pianista oficial de “Operalia” (presidido por Plácido Domingo) y jurado de los Concursos Internacionales de Canto de Bilbao, Logroño y Bogotá. Defensor del Patrimonio Musical, entre su discografía destacan “Granados Songs Integral”, “Carlos Álvarez Live in La Monnaie”, “Ametsetan”, “Carneriana”, “La Seduzione”, “Los cisnes en Palacio” y “Pedrell songs” (Ibs) o la integral de canciones de Antón García Abril (Bolamar Music). En el año 2010 recibe el premio Ópera Actual “por su dedicación a la lírica y el creciente prestigio que está logrando en este campo”.

**EDURNE IBAÑEZ (DISEÑO DE MODA Y VESTUARIO ESCÉNICO)**
Sus creaciones se caracterizan por la utilización de elementos de reciclaje, dotándolas de un aspecto vanguardista y atemporal.

Desde que comenzara su trayectoria profesional en 1999, Edurne Ibáñez ha obtenido con sus colecciones numerosos reconocimientos nacionales e internacionales. Entre los más destacados en el mundo de la Moda han sido el premio nacional al mejor joven diseñador 2009 y el premio internacional “art&fashion” en 2010. Adicionalmente en vestuario escénico, Edurne Ibañez ha sido seleccionada para la Elección de los Vestuarios de las Óperas producidas por O.C.N “Toy Shop y El lazarillo de Tormes dentro de “PQ15”Cuatrienal de Praga.

La investigación y la innovación son los pilares de las Propuestas que cada año Edurne Ibáñez aporta como legado al mundo de La Moda y las artes escénicas sorprendiendo en los conceptos y fusionando la artesanía y la tradición con la Moda y el arte.

# Lunaria

## Andrea Jiménez, Edurne Ibáñez eta Rubén Fernández Aguirrre

## Uztailak 23

## Lirika / Moda



Ilargiaren betiereko argiaren pean sortu da Lunaria, musika eta moda fusionatzen dituen bidaia. Errezitala giro oniriko batean erakusten da, Selenerena egiten duen sopranoak gidatuta, hura baita ilargiaren jainkosa greziarra. Ikusleak zenbait fase emozionaletatik igaroko dira, ilargiaren zikloarekin lotuta. Schubert, Brahms, Lecuona, Albéniz, Liza Lehmman, Sorozábal eta Antón García Abril autoreen lanak lotuko dira narratiba honetan, eta agerian geldituko da nola eragiten duen ilargiak ametsetan, afektuetan eta denboraren joanean.

Jantziak narratiba eszenikoaren funtsezko zatia dira, eta pieza bakoitzarekin aldatzen dira; kolorearen, ehunduraren edo formaren eraldaketa bakoitzak ilargiaren aurpegi desberdin bat islatzen du: maitemindua, urruna, iluna...

Lunaria ez da errezital hutsa: zentzumen-esperientzia bat da, errealitatearen eta irudimenaren artekoa, eta omenaldia egiten dio gizateriaren sinbolo zaharrenetako eta inspiratzaileenetako bati.

**ANDREA JIMÉNEZ (SOPRANOA)**

Andrea Jiménez soprano nafarrak Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan hasi zuen musikako prestakuntza, biolina eta kantua ikasi baitzituen han. Ondoren, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen Carmen Arbizu katedradunarekin, eta ohorezko matrikula eta karrera bukaerako saria lortu zituen.

Ondoren, haren irakasle izan dira Dennis O'Neill, Isabel Rey, Barbara Bonney, David Mason, Rubén Fernández Aguirre, Carlos Chausson, María Bayo, Raquel Lojendio eta Maite Beaumont.

2016an, Bernako Unibertsitatearen (Suitza) ikasketa-beka bat jaso zuen. 2017an, Nafarroako Gobernuaren aparteko beka bat irabazi zuen, eta Bernako Unibertsitateko Swiss Opera Studio delakoan parte hartu zuen, Brigitte Balleys mezzosopranoarekin batera.

Aldi berean, Theater Orchester Biel Solothurn delakoan aritu zen lanean, 2017-2018 denboraldian, Vladislav Karklin, Alexander Anissimov eta Jérôme Pillement zuzendarien gidaritzapean; honako hauen rolak interpretatu zituen: Brigitte, Txaikovskiren Iolanta obran; Valencienne, Lehár-en Die lustige Witwe obran; eta Donna Elvira eta Donna Anna, Gazzaniga-ren Don Giovanni obran. Suitzatik itzuli zenean, rol hauek interpretatu zituen: Marzelline (Fidelio), Giannetta (L'elisir d'amore) eta Marina (Emilio Arrietaren Marina obra), José Miguel Pérez Sierraren zuzendaritzapean, Iruñeko Baluarte auditoriumean; Belinda (Dido eta Eneas), Granadako Isabel la Católica antzokian; Serpina (La serva padrona), Iruñeko Gaiarre antzokian; Frasquita (Carmen) eta Annina (La traviata), Oviedoko Campoamor antzokian; eta Adina (L'elisir d'amore), Palmako Teatre Principal antzokian (Mallorca).

# Lunaria

## Andrea Jiménez,  Edurne Ibáñez eta Rubén Fernández Aguirrre

# Uztailak 23

## Lirika / Moda

Bere azken lanen artean, nabarmentzekoak dira Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin (BOS), Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin (OSN) eta Bilboko Udal Bandarekin batera egindako kolaborazioak, Musica/Musika jaialdian, eta Mari-Eliren rolaren interpretazioa, Bilboko Arriaga Antzokian, Calixto Bieitok berriki ekoitzitako Jesus Guridiren Mari-Eli zarzuelan.

**RUBÉN FERNÁNDEZ AGUIRRE (PIANISTA)**
Barakaldon jaio zen (Bizkaia). Félix Lavillaren ikaslea izan zen, abeslarien akonpainamenduan espezializatu zen Vienan eta Munichen, eta Wolfram Rieger-en aholkuak jaso zituen.

Besteak beste, abeslari hauen pianista izan da maiz: Lisette Oropesa, Ermonela Jaho, Carlos Álvarez, Sabina Puértolas, Nuria Rial, Ismael Jordi, Jose Antonio López, Vanessa Goikoetxea eta Miren Urbieta. Halaber, zenbait errezital eman ditu Sonia Jontxeva, Javier Camarena, Sara Blanch, David Menéndez, Hera Hyesang Park eta Maite Beaumontekin, eta Mariella Devia, Ainhoa Arteta eta María Bayorekin ere aritu da, besteak beste.

Espainiako antzoki eta jaialdi gehienetan jotzen du, baita Vienako Staatsoper eta Musikverein direlakoetan, Pesaroko ROF jaialdian, Savonlinna eta Bregenzeko jaialdietan, Moskuko Txaikovski aretoan, Pragako Smetana Hall-en, Züricheko Opernhaus delakoan, Lisboako Gulbenkian-en, Budapest Operan, New Yorkeko Carnegie Hall-en, Seoul Arts Center-en, Montevideoko Solís antzokian, Buenos Airesko Usina del Arten eta CCKn, eta abar.

Pianista ofiziala izan da Plácido Domingok zuzenduriko “Operalia” lehiaketan, eta epaimahaikidea Bilboko, Logroñoko eta Bogotako nazioarteko kantu-lehiaketetan.
Musika-ondarearen defendatzailea da, eta lan nabarmen hauek daude haren diskografian: “Granados Songs Integral”, “Carlos Álvarez Live in La Monnaie”, “Ametsetan”, “Carneriana”, “La Seduzione”, “Los cisnes en Palacio”, “Pedrell songs” (Ibs) eta Antón García Abrilen kantuen integrala (Bolamar Music). 2010ean, Ópera Actual saria jaso zuen, “lirikan egindako lanagatik eta arlo horretan lortzen ari den prestigioagatik”.

**EDURNE IBAÑEZ (MODAKO ETA ESZENAKO JANTZIEN DISEINATZAILEA)**
Birziklatzeko elementuak erabiltzen ditu bere sorkuntzetan, eta abangoardiako itxura atenporala izaten dute horrela.

1999an ibilbide profesionala hasi zuenetik, Edurne Ibañezen bildumek hainbat aitorpen lortu dituzte estatuan eta nazioartean.  Besteak beste, modaren munduko sari nabarmen hauek jaso ditu: diseinatzaile gazte onenaren sari nazionala, 2009an, eta “art & fashion” nazioarteko saria, 2010ean. Gainera, eszenako jantzien arloan, Edurne Ibañez hautatu dute OCNk ekoitzitako Toy Shop eta El lazarillo de Tormes operetako jantziak aukeratzeko, Pragako PQ15 lau urtean behingo jaialdian.

Ikerketa eta berrikuntza dituzte oinarri Edurne Ibañezek urtero egiten dituen proposamenek, zeinak legatu bat baitira modaren eta arte eszenikoaren mundurako. Kontzeptu harrigarriak dakartza, eta artisautza eta tradizioa modarekin eta artearekin fusionatzen ditu.

Las Tres Montañas

30 Julio

Gorka Beunza

Instalación / Fotografía



Venid a las tres montañas y podréis escudriñar en ellas: el fuego en la duda, la ciudad perdida, la belleza cambiante, el ojo del ciervo, el manantial, el cielo rosáceo, el oscuro bosque, la inmensidad, la nada. Honrar el camino en la belleza de la dualidad hasta vislumbrar la unidad. Tres son las montañas coronadas con sus nueve soles.

En esta instalación encontrarás tres estructuras que simbolizan las tres montañas. En cada montaña los asistentes entrarán individualmente y tendrán una experiencia con la instalación que hay en cada montaña. Sonarán cantos sagrados que nos lleven a un estado de percepción alterada. Se invita a que cada asiste traiga consigo algo que quiere ofrecer al altar de la tercera montaña. Algo que sea preciado para ti. Es un lugar donde depositar nuestro agradecimiento a la Tierra.

**GORKA BEUNZA**

Gorka Beunza (Pamplona 1978), en 2004 se gradúa en fotografía artística en la escuela de arte nº10 de Madrid. Ha participado en talleres sobre el proceso creativo con fotógrafos/as como JH Engström y Graciela Iturbide. Su fotografía esta cargada de poética costumbrista y realismo mágico, desde todas las series que dedica a su entorno más cercano, a los paisajes que él más conoce en el pueblo de su familia, o los bodegones; todo nace de su necesidad de sentir cercano lo que va a fotografiar.

# Hiru Mendiak

## Uztailak 30

Gorka Beunza

Instalazioa / Argazkigintza



Etorri hiru mendietara, eta honako hauek begiesten ahalko dituzue: zalantzaren sua, hiri galdua, edertasun aldakorra, oreinaren begia, iturburua, zeru arrosa, baso iluna, mugagabetasuna, ezereza.

Bidea ohoratzea dualtasunaren edertasunean, batasuna ikusi arte. Hiru dira mendiak, beren bederatzi eguzkiekin. Instalazio honetan, hiru mendiak irudikatzen dituzten hiru egitura aurkituko dituzu. Mendi bakoitzean, ikusleak banaka sartuko dira, eta mendi bakoitzean dagoen instalazioarekin esperientzia bat izanen dute. Kantu sakratuak entzunen ditugu, gure pertzepzio-egoera aldaraziko dutenak. Ikusleak bultzatu nahi ditugu zerbait ekartzera, hirugarren mendiko aldarean eskaintzeko. Zuretzat preziatua den zerbait. Toki horretan, Lurrari eskerrak eman nahi dizkiogu.

**GORKA BEUNZA**

Gorka Beunzak (Iruña, 1978) argazkilaritza artistikoko gradua lortu zuen 2004an Madrilgo Artediez eskolan. Sormen-prozesuari buruzko zenbait tailerretan parte hartu du, JH Engström eta Graciela Iturbide argazkilariekin, besteak beste. Poetika kostunbristaz eta errealismo magikoz beteta daude bere argazkiak: hurbilen duen inguruneari eskaintzen dizkion serieak, familiaren herrian hobekien ezagutzen dituen paisaiak, nahiz natura hilak, denek ere sorburuan dute argazkian hartuko duen hori hurbil sentitzeko premia.

# Olerkia — 6 Agosto

## Amilami — Arpa / Música Folk / Danza



Amilami es confluencia; de sonidos musicales, expresión de tradiciones, experimentación, movimiento, imágenes, voces que cuentan historias nuevas y antiguas... es curiosidad inagotable, deleite en la música y burbuja de tiempo.

Amilami es el nombre de una lamia que en la mitología vasca vive en armonía con la naturaleza y comparte su esencia amorosa con quien tiene la suerte de encontrarla en su camino. Amilami invita a su público a sumergirse en ese fluir... a través de fuerzas gravitacionales, siguiendo el devenir del agua, viendo florecer la primavera, volando con los pájaros de diferentes horizontes, asistiendo a la creación... y a la destrucción del poema.

Este espectáculo conecta a los espectadores con la ligereza, la sutileza e invita a la participación y activación a través de la danza.

**ALICIA GRIFFITHS**
Alicia nació en Pamplona en el seno de una familia musical, siendo su abuelo Manuel Turrillas, el muy querido compositor de música popular navarra.

Completó sus estudios medios de arpa en el conservatorio Pablo Sarasate de dicha ciudad y se trasladó a Gales en 2006 para estudiar arpa en el Royal Welsh College of Music and Drama, donde obtuvo la titulación de Bachelor of Music. Terminó en 2013 sus estudios de Máster en interpretación musical, en el Trinity Laban Conservatoire of Music and Dance de Londres. Alicia ha actuado como arpista solista junto con la Orquesta Sinfónica de Navarra de manera regular y ha colaborado con diversas orquestas del ámbito nacional e internacional.

Desarrolla su labor pedagógica en el Conservatorio Superior de Música de Navarra. Le entusiasma la música de cámara y, por ello, participa regularmente con diferentes agrupaciones. Su interés y curiosidad por las artes en general le han llevado a colaborar con artistas pertenecientes a otras disciplinas artísticas, intercambiando ideas, creatividad y expresión.

**UNAI OTEGI**
Pamplona (1972), estudió música y aprendió a tocar la flauta en diferentes escuelas de España y Francia. Se tituló en el Conservatorio Superior de Música de Navarra con Matrícula de Honor y Premio de fin de Carrera.

Ha sido alumno de B. Aguirre, X. Relats, P. Dumail, V. Martinez Peñuela y B. Claverie entre otros. Desde el año 2000 es profesor de flauta en la Escuela Municipal de Música de Huarte.

En el ámbito de la música de cámara, ha tocado y grabado con diversos artistas y formaciones.

Como intérprete, su evolución ha ido de la flauta Boehm hacia flautas de sistema simple como el bansuri, el traverso barroco o la flauta irlandesa. Al mismo tiempo, desde 1994 construye ocarinas de arcilla y diferentes tipos de flautas de plástico y madera.

**ARANTZA LARREA**
(Agoitz, 1985) Apasionada de la danza, se ha sumergido en este mundo desde la temprana edad de 4 años a través de la euskal dantza. A lo largo de casi 30 años como integrante del grupo de danzas, ha participado en numerosos festivales y actuaciones como dantzari, ha ampliado su conocimiento y repertorio indagando en las raíces de la euskal dantza tradicional y de nueva creación, ésta última de la mano de Izaskun Iturri (2002).

Desde una exploración no profesional, simultáneamente, ha seguido ampliando sus conocimientos descubriendo otras danzas: danza oriental (con María Pérez, Miren Ripa, Alicia Cancel), danzas de la India (Ana Baigorri), claqué (Lidia Villalba), danzas africanas (Nahia Uxua), danza contemporánea, bailes latinos, danzas del mundo, balfolk, etc.

Tras un parón debido a una enfermedad crónica que la ha alejado de la práctica física, en 2020-2022 se ha formado como instructora de yoga en la Escuela de Yoga Witryh, donde ha integrado las dolencias físicas y la espiritualidad a través de la práctica de los Karanas (danza- yoga).

En el seno de Amilami Arantza desarrolla múltiples intereses creativo-artísticos como la música, las acuarelas o la poesía, además de la danza.

**DANIEL VELASCO**
Daniel Velasco (Pamplona, 1988) descubrió la música en su niñez, y empezó a tocar el violín a los 7 años. Formado inicialmente en los conservatorios de Navarra (Joaquín Maya y Pablo Sarasate), donde estudió violín, continuó sus estudios en el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) y en la LUCA School of Arts de Lovaina (Bélgica), donde obtuvo respectivamente la licenciatura y el máster en Composición.

En 2015 se trasladó a Suiza, donde completó el CAS en pedagogía Jaques-Dalcroze en la Haute Ecole de Musique de Genève. En la Suiza francófona compaginó la enseñanza musical con su carrera como instrumentista y creador: interpreta, crea y arregla música tradicional y neo-tradicional principalmente de Europa con los grupos “Grand Balthazar”, “L’air inconnu”, “Djîga”, “Duo Atman”, “Zuretalur”...

En el marco de sus proyectos de música para la danza, también imparte regularmente cursos de danzas (neo-) tradicionales europeas. Los temas recurrentes en la carrera de Daniel son por tanto la composición, el movimiento, la improvisación y la interpretación, para los que Amilami es un campo fértil de experimentación y creación.

# Olerkia

# Abuztuak 6

## Amilami

## Harpa / Folk Musika / Dantza



Amilami lanean, bat egiten dute musika-soinuek, tradizioen adierazpenak, esperimentazioak, mugimenduak, irudiek, istorio berri eta zaharrak kontatzen dituzten ahotsek... Jakin-min agorrezina da, musikaren gozamena eta denbora-burbuila.

Amilami izeneko lamina, euskal mitologian, naturarekin harmonian bizi da eta bere maitasuna ematen die bidean harekin topo egiteko zortea dutenei. Amilamik emari horretan murgiltzera bultzatzen ditu ikusleak: grabitazio-indarren bidez, uraren jarioari jarraikiz, udaberria loratzen ikustera, zerumuga desberdinetako txoriekin hegan egitera, poemaren sorkuntzaren... eta suntsipenaren lekuko izatera.

Ikuskizun honetan, ikusleak arintasunarekin eta sotiltasunarekin lotuko dira, eta dantzaren bidez aktibatzeko eta parte hartzeko dei eginen die.

**ALICIA GRIFFITHS**
Alicia Iruñean jaio zen, musikari estuki loturiko familia batean. Haren aitatxi Manuel Turrillas izan zen, Nafarroako herri-musikaren konpositore maitea.

Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan burutu zituen harpako erdi-mailako ikasketak, eta 2006an Galesera joan zen, Royal Welsh College of Music and Drama delakoan harpa ikasteko; hor, Bachelor of Music titulua lortu zuen. 2013an, musika-interpretazioko masterreko ikasketak burutu zituen Londresko Trinity Laban Conservatoire of Music and Dance kontserbatorioan.

Aliciak harpista bakarlari gisa jo du aldian behin Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin batera, eta estatuko eta nazioarteko hainbat orkestrarekin lankidetzan aritu da. Lan pedagogikoa egiten du Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Ganbera-musika biziki maite du, eta, horregatik, aldian behin zenbait taldetan parte hartzen du. Oro har arteekiko duen interes eta jakin-mina direla-eta, beste diziplina artistiko batzuetako artistekin lankidetzan aritu da, eta haiekin ideiak, sormena eta adierazpena trukatu ditu.

**UNAI OTEGI**
Iruñean jaio zen 1972an, musikako ikasketak egin zituen, eta Espainiako eta Frantziako zenbait eskolatan txirula jotzen ikasi zuen. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ohorezko matrikula eta karrera bukaerako saria jaso zituen.

B. Aguirre, X. Relats, P. Dumail, V. Martinez Peñuela eta B. Claverie izan ditu irakasle, besteak beste. 2000tik, txirula-irakaslea da Uharteko Udalaren Musika Eskolan. Ganbera-musikaren arloan, hainbat artistarekin eta taldeekin jo eta grabatu izan du. Interprete gisa bilakaera bat izan du,

Boehm txirula erabiltzetik sistema sinpleko txirulak erabiltzera, hala nola bansuria, trabertso barrokoa eta Irlandako txirula. Aldi berean, 1994tik buztinezko okarinak egiten ditu, baita plastikozko eta zurezko hainbat txirula mota ere.

**ARANTZA LARREA**
Agoitzen jaio zen 1985ean, eta dantza du pasio. Mundu horretan murgildu zen 4 urte baizik ez zituenean, euskal dantzaren bidez. Ia 30 urtez, dantza-taldeko kidea izan da, dantzari aritu da hainbat jaialdi eta emanalditan, eta euskal dantza tradizionalaren eta sorkuntza berrien erroak arakatu ditu bere ezagutza eta errepertorioa handitzeko, Izaskun Iturriren eskutik (2002).

Aldi berean, esparru profesionaletik kanpo beste dantza batzuk ikasi ditu, eta ezagutzak zabaldu: ekialdeko dantza (María Pérez, Miren Ripa eta Alicia Cancel-ekin), Indiako dantzak (Ana Baigorri), klakea (Lidia Villalba), Afrikako dantzak (Nahia Uxua), dantza garaikidea, dantza latinoak, munduko dantzak, balfolka eta abar.

Eritasun kroniko baten ondorioz, aldi batez praktika fisikoa alde batera utzi behar izan zuen, baina horren ondoren, 2020tik 2022ra bitartean, yogako irakasle izateko prestakuntza jaso du Witryh yoga-eskolan; hor, min fisikoak eta espiritualtasuna integratu ditu karanen bidez (dantza-yoga).

Amilamiren barnean, Arantzak interes sortzaile eta artistiko askotarikoak garatzen ditu, hala nola musika, akuarela eta poesia, dantzaz gain.

**DANIEL VELASCO**
Daniel Velascok (Iruña, 1988) haurra zela egin zuen topo musikarekin, eta 7 urterekin hasi zen biolina jotzen. Hasiera batean Nafarroako kontserbatorioetan (Joaquín Maya eta Pablo Sarasate) ikasi zuen biolina, eta ondoren Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) ikasi zuen, baita Lovainako (Belgika) LUCA School of Arts eskolan ere. Haietan, hurrenez hurren, konposizioko lizentzia eta masterra lortu zituen.

2015ean Suitzara joan zen, eta Jaques-Dalcroze pedagogiako CASa burutu zuen Genevako Haute Ecole de Musique eskolan. Suitza frankofonoan, musika-irakaskuntzarekin batera, ibilbidea egin zuen instrumentista eta sortzaile gisa: batez ere Europako musika tradizionala eta neo-tradizionala interpretatu, sortu eta moldatu zuen, “Grand Balthazar”, “L’air inconnu”, “Djîga”, “Duo Atman” eta “Zuretalur” taldeetan, besteak beste.

Dantzarako musikaren proiektuen esparruan, aldian behin Europako dantza (neo-)tradizionalei buruzko ikastaroak ematen ditu. Danielen ibilbidean garrantzi handia dute, hortaz, konposizioak, mugimenduak, inprobisazioak eta interpretazioak, eta Amilami esperimentaziorako eta sorkuntzarako alor emankorra da ildo horretan.

# En Vuestro Nombre

# 13 Agosto

## Iñigo Cabezafuego y Beatriz Sánchez

## Ceremonia sonora de variadades rituales



concierto / performance / artefactos / videocreación / ritual / ceremonia carnavalesco / visiones / fantasmagorías / magia / sátira / pop / jingles /sintes / streaming / mitomaniacos / loTech / paranormales / bailes / efectos especiales / experimental / música / improvisación / IA /serie B / cacofonías / proyecciones / ópera tecno-mística / analógico

EN VUESTRO NOMBRE es un espectáculo de música en vivo y visuales que se convierte en un ritual festivo, donde la magia, la tecnología y la participación del público se entrelazan de forma inesperada. Creado por Cabezafuego y Beatriz Sánchez, el show transforma el folclore supersticioso en una experiencia escénica vibrante, irreverente y llena de sorpresas. No hay burla, no hay crítica a religiones, ritos o creencias espirituales. Se inspira en en ellos con la idea primaria en que se basan: hacer el bien de algún modo. Un concierto expandido que se ofrece como una ceremonia carnavalesca, combinando proyecciones, conjuros, trucos y rituales nunca vistos.

**CABEZAFUEGO**

Músico y serígrafo navarro con más de 30 años de trayectoria. Fundador de bandascomo Half Foot Outside, Mermaid, Bizardunak, Basque Country Pharaons, Royal Canal o Black Lagun, también ha formado parte de otras como El Columpio Asesino, o Jugos Lixiviados, además de las formaciones vizcaína Atom Rhumba, madrileña Mohama Saz e internacional Los Separatistas.

Ha publicado más de una veintena de discos, y ha girado por Europa, América y Japón. Desde hace 10 años también es artista sonoro y ha colaborado en diferentes disciplinas con artistas como Beatriz Sánchez, Pr0t0c0lectivo (de los que formó parte en sus comienzos) y Xabier Erkizkia.

También se dedica a la serigrafía artística hace 25 años y trabaja desde el Centro Huarte, donde ha cedido su maquinaria para uso colectivo.



**BEATRIZ SÁNCHEZ (LOOPITAS)**
Beatriz Sánchez es artista visual Licenciada en Bellas Artes en la UPV y Máster en Artes Digitales por la Universidad Pompeu Fabra.

Es dibujante, creadora audiovisual y agitadora en el terreno multimedia, actuando desde distintos frentes en relación al análisis del impacto que originan los modelos normativos, la sociedad de la información y los discursos oficiales de la práctica artística.

En la actualidad reside en Bilbao, donde combina la producción de su trabajo artístico junto a la realización de videoclips y actuaciones de vídeo en directo. También se dedica a la pedagogía creativa, impartiendo regularmente talleres de videocreación en festivales culturales, universidades y centros de arte.



# En Vuestro Nombre

# Abuztuak 13

## Iñigo Cabezafuego y Beatriz Sánchez

## Erritu-barietateen soinu-zeremonia



Kontzertua / performancea / artefaktuak / bideosorkuntza / erritua / inauteriko zeremonia / ikuskariak / fantasmagoriak / magia / satira / popa / jingleak /sinteak / streaminga / mitomaniakoak / IoTech / paranormalak / dantzak / efektu bereziak / esperimentala / musika / inprobisazioa / AA / B seriea / kakofoniak / proiekzioak / opera tekno-mistikoa / analogikoa

EN VUESTRO NOMBRE zuzeneko musika-ikuskizun bisuala da, jai-erritu bat, non magia, teknologia eta ikusleen parte-hartzea korapilatzen baitira ustekabean. Cabezafuegok eta Beatriz Sanchezek sortu dute show hau, eta bertan folklore superstiziosoa esperientzia eszeniko kartsu bilakatzen da, lotsagabea eta ezustekoz betea. Ez dago burlarik, ez da kritikatzen erlijiorik, errituik edo sinesmen espiritualik. Haietan inspiratua dago, oinarrian duten ideia primarioan: nolabait ongia egitea. Kontzertu zabaldua da, inauteriko zeremonia baten gisakoa, non inoiz ikusi gabeko proiekzioak, konjuruak, trikimailuak eta errituak uztartzen baitira.

**CABEZAFUEGO**

Nafarroako musikari eta serigrafo honek 30 urtetik gorako ibilbidea du. Hainbat banda sortu ditu, hala nola Half Foot Outside, Mermaid, Bizardunak, Basque Country Pharaons, Royal Canal eta Black Lagun, eta beste batzuetan parte hartu du, hala nola El Columpio Asesino eta Jugos Lixiviados taldeetan, Bizkaiko Atom Rhumba taldean, Madrilgo Mohama Saz-en eta nazioarteko Los Separatistas taldean. Hogei disko baino gehiago argitaratu ditu, eta zenbait bira egin ditu Europan, Amerikan eta Japonian. Duela 10 urtetik hona, soinu-artista ere bada, eta hainbat diziplinatan parte hartu du, besteak beste, Beatriz Sánchez, Pr0t0c0lectivo (hasieran kide izan zen) eta Xabier Erkizia artistekin.

Duela 25 urtetik serigrafia artistikoan ere aritzen da, eta Uharte Zentroan lan egiten du, hari laga baitizkio makinak, beste batzuek ere erabil ditzaten.



**BEATRIZ SÁNCHEZ (LOOPITAS)**

Beatriz Sánchez artista bisuala da, Arte Ederretako lizentziaduna EHUn; Arte Digitaletako masterra ere egin zuen Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Marrazkilaria da, ikus-entzunezko sortzailea eta multimedia-eremuaren aztoratzailea, eta hainbat frontetatik aztertzen du zer inpaktu duten eredu normatiboek, informazioaren gizarteak eta praktika artistikoaren diskurtso ofizialek.

Gaur egun Bilbon bizi da, eta lan artistikoa ekoizteare-kin batera, bideoklipak eta zuzeneko bideo-emanaldiak egiten ditu. Halaber, sormen-pedagogian ere aritzen da, eta aldian behin bideosorkuntzako tailerrak ematen ditu kultura-jaialdietan, unibertsitateetan eta arte-zentroetan.



# El Final Como Comienzo 20 Agosto

## Naroa Armendáriz y Luis Mariano Pintura / Música experimental



“Porque un final es el comienzo de otras muchas posibles cosas” es la frase que mejor resume lo que el músico Luis Mariano y la pintora Naroa Armendariz representarán en su espectáculo del 20 de agosto en el ciclo 9 soles.

Música y pintura se entrelazarán a nivel visual y sonoro. Jugando, por un lado, con los sonidos de la crudeza de la guitarra más desnuda, pasando a una música más minimalista, que se van a hermanar con los propios trazos pictóricos y unas voces antiguas de grabación. Pasarán de las voces más primitivas y desgarradoras a otras más vanguardistas.

Por otro lado, las imágenes abstractas y figurativas realizadas con diferentes técnicas bailarán en diálogo con los sonidos.

**NAROA ARMENDARIZ**
Licenciada en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco y con una intensa y experimental trayectoria en el mundo del arte tradicional tanto en proyectos individuales como colectivos.

La obra artística de Naroa se crea a partir de una incesante búsqueda de comprensión trascendental del equilibrio de la vida y de su pasión por la investigación creativa y expresiva.

En esa búsqueda juega constantemente con elementos polarizados como el movimiento y la quietud, el ruido visual y el silencio, lo abrupto y lo sutil, la asimetría, la profundidad y la ligereza, la seriedad y el sentido del humor, lo espiritual y lo mundano.

**LUIS MARIANO**
“Una de las guitarras flamencas referentes de su generación” según la critica. Su toque, caracterizado por su limpieza, fuerza y especial dulzura hace que sea excepcionalmente creativo para el baile. Esto le lleva a realizar la composición y dirección musical de los espectáculosde de bailaores como Antonio Canales, Manuel Liñan, Fuensanta la Moneta , Patricia Guerrero, Mónica Iglesias y un largo etcétera.

En el acompañamiento al cante, destacan sus colaboraciones con figuras como Miguel Poveda, Carmen linares, Arcangel, Argentina, Luis el Zambo, Capullo de Jerez o Diego “El Cigala”. Cabe destacar su labor como compositor, interprete y acompañante de Marina Heredia, y su colaboración con el maestro Manolo Sanlucar en la grabación de “La Obra Magna del Flamenco”.

En 2014, es Estrella Morente quién decide contar con la guitarra de Luis Mariano para el espectáculo “Pastora 1922” bajo la dirección de Enrique Morente.

# El Final Como Comienzo

# 20 Agosto

## Naroa Armendáriz y Luis Mariano

## Pintura / Música experimental

Su interés, creatividad, y amplio registro musical trascienden mas allá de cualquier etiqueta mediante colaboraciones con artistas de diversos estilos musicales como Josep Pons, Yorrick Throman, Mariola Cantarero, o Chekara.

Colabora con la Orquesta Ciudad de Granada bajo la dirección de Manuel Busto interpretando la pieza “Jauleña” nunca antes interpretada en directo por un guitarrista flamenco dada su complejidad.

Cabe destacar su composición de la banda sonora de películas como “Luna negra” y “Voy hacer que me quieras pase lo que pase” del artista multidisciplinar Mikel Belascoain.



# El Final Como Comienzo

# Abuztuak 20

## Naroa Armendáriz eta Luis Mariano

## Pintura / Musika esperimentala



“Bukaera bat beste gauza posible askoren hasiera baita”. Esaldi horrek ezin hobeki laburbiltzen du Luis Mariano musikariak eta Naroa Armendariz margolariak plazaratuko dutena, 9 Eguzki zikloan, abuztuaren 20ko ikuskizunean.

Musika eta pintura korapilatuko dira, maila bisualean eta soinuen mailan. Alde batetik, gitarra biluziaren gordintasunaren soinuekin jostatuko dira, eta musika minimalistago batera pasatuko.

Haiekin batera, trazu piktorikoak eta grabazio-ahots zahar batzuk uztartuko dira. Ahots primitibo eta urratzaileenetatik abiatu eta ahots abangoardistagoetara igaroko dira.

Bestalde, teknika desberdinekin egindako irudi abstraktu eta figuratiboak dantzan ariko dira soinuekin elkarrizketan.

**NAROA ARMENDARIZ**
Arte Ederretako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ibilbide bizi eta esperimentala egin du arte tradizionalaren munduan, banakako nahiz taldeko proiektuetan.

Naroaren lan artistikoak oinarrian du bizitzaren orekaren ulermen transzendentala etengabe bilatzea, eta sormenaren eta adierazpenaren ikerketan duen grina.

Bilaketa horretan, elementu polarizatuekin jostatzen da etengabe, hala nola mugimendua eta gelditasuna, ikusizko zarata eta isiltasuna, gogortasuna eta sotiltasuna, asimetria, sakontasuna eta arintasuna, seriotasuna eta umorea, espiritualtasuna eta munduzaletasuna.

**LUIS MARIANO**
“Bere belaunaldiko gitarra-jotzaile flamenkoetan erreferentea”, kritikaren arabera. Garbi, indarrez eta gozotasun bereziz jotzen du, eta, horregatik, bere musika sormen handikoa da dantzarako. Hori dela-eta, hainbat flamenko-dantzariren ikuskizunetako musika konposatzen eta zuzentzen du. Zerrenda horretan daude Antonio Canales, Manuel Liñan, Fuensanta la Moneta, Patricia Guerrero, Mónica Iglesias eta beste asko.

Kantuari laguntzeko kolaborazioak egin ditu hainbat artista nabarmenekin, hala nola Miguel Poveda, Carmen Linares, Arcangel, Argentina, Luis el Zambo, Capullo de Jerez eta Diego “El Cigala” kantariekin. Nabarmentzekoa da Marina Herediaren laguntzaile, interprete eta konpositore gisa egindako lana, eta Manolo Sanlucar maisuarekin egindako kolaborazioa “La Obra Magna del Flamenco” lana grabatzean.

2014an, Estrella Morentek erabaki zuen Luis Marianok gitarra joko zuela “Pastora 1922” ikuskizunean, Enrique Morenteren zuzendaritzapean.

# El Final Como Comienzo

# Abuztuak 20

## Naroa Armendáriz eta Luis Mariano

## Pintura / Musika esperimentala

Haren interesa, sormena eta musika-erregistro zabala etiketa orotatik haratago doaz, eta hainbat musika-estilotako artistekin lankidetzan aritu da, hala nola Josep Pons, Yorrick Throman, Mariola Cantarero eta Chekara artistekin.

Ciudad de Granada orkestrarekin lankidetzan aritu zen, Manuel Bustoren zuzendaritzapean, eta “Jauleña” obra interpretatu zuen, zeina ordura arte inoiz ez baitzuen gitarra-jotzaile flamenko batek interpretatu zuzenean, oso zaila baita.

Nabarmendu behar da Mikel Belascoain diziplina anitzeko artistaren “Luna negra” eta “Voy hacer que me quieras pase lo que pase” filmetako soinu-bandak konposatu dituela.



# Gitarra Lekeitioak (Onomatopeikoa II)

Joseba Irazoki

27 Agosto

Música



Joseba Irazoki nos presenta en 9 soles su nuevo album, Gitarra Lekeitioak (Onomatopeikoa II) continuación del lanzamiento de Gitarra Onomatopeikoa de Irazoki en 2017.

Joseba Irazoki (Bera, 1974) es un músico vasco versátil e inquieto, elegante y pragmático que posee una extensa discografía con casi 20 albumes editados. Tan interesado por la composición como por la improvisación, Joseba Irazoki viene dejando su impronta en una heterogénea amalgama de proyectos, aventuras e intenciones que han acabado por liberar su yo más introspectivo y personal en los trabajos en los que se ha atrevido a rubricar con su nombre de pila. Con ellos, Irazoki ha abierto de par en par un universo sincero y directo, pulcro y elaborado, mecido en el estudio atento de la tradición y la experimentación a las seis cuerdas, pero también en la ávida búsqueda de un distintivo, de una identidad específica que el músico vasco ha encontrado echando mano de sus propios recursos.

Fundamentándose así en unas guitarras imaginativas, en su capacidad para elaborar bucles que derrochan naturalidad, como si siempre hubieran flotado entre nosotros, en una voz franca, segura y emocionante, y en la capacidad para arrinconar geniales melodías. Joseba es un guitarrista polivalente, valiente y sensato, inmediato y, a la par, plagado de admirables recovecos. Siempre entre la composición, la improvisación y la experimentación configurando una propuesta artística sorprendente e inclasificable.

Paralelamente a sus entregas como “Joseba Irazoki”, este artista viene desarrollando un listado de proyectos y colaboraciones con otros músicos participando como músico de sesión y como guitarrista de directo en proyectos entre los que destacan: Nacho Vegas, Duncan Dhu, Mikel Erentxun, Rafa Berrio, Amateur, Petti, Rudiger, Rafa Rueda, Anje Duhalde...

Además Joseba ha sido componente del prestigioso grupo Atom Rhumba y ha girado y colaborado con artistas internacionales de la talla de Terry Lee Hale, Barrence Whitefield, Damo Suzuki…. En su nómina de sellos discográficos con los que ha publicado están: Lucky kitchen, Creative sources, Glasvocht records, Important records, Con-V, Moonpalace records Hirusta records, Bidehuts, Brown interior music, Mascarpone discos…

# Gitarra Lekeitioak (Onomatopeikoa II)

Joseba Irazoki

# Abuztuak 27

Musika



Joseba Irazokik album berria aurkeztuko digu 9 Eguzki programan: Gitarra Lekeitioak (Onomatopeikoa II), 2017an argitaraturiko Gitarra Onomatopeikoa lanaren jarraipena baita.

Joseba Irazoki (Bera, 1974) euskal musikari moldakor eta geldiezina da, dotorea eta pragmatikoa, eta diskografia zabala du: ia 20 album argitaratu ditu. Konposizioa nahiz inprobisazioa interesatzen zaizkio, eta, hala, Joseba Irazokik bere arrastoa utzi du proiektu, abentura eta asmoen multzo heterogeneo batean, eta azkenean bere "ni" introspektiboena eta pertsonalena askatu du, bere ponte-izenarekin argitara ematera ausartu den lanetan. Lan horiekin, Irazokik unibertso zintzo eta zuzena ireki du parez pare, dotorea eta landua, tradizioa arretaz aztertu eta sei sokekin esperimentatu ondoan. Halaber, bereizgarri bat bilatu du irrikaz, identitate espezifiko bat, eta euskal musikari honek bere baliabideetara jo du hori aurkitzeko.

Horrela, irudimenezko gitarra batzuetan oinarritzen da, naturaltasuna barra-barra duten begiztak sortzeko gaitasunean, beti gure artean flotatzen egon balira bezala, ahots zintzo, seguru eta zirraragarri batean, eta melodia apartak zokoratzeko gaitasunean. Joseba gitarra-jotzaile balioaniztuna da, ausarta eta zentzuduna, berehalakoa eta, aldi berean, bazter miresgarriz betea. Konposizioaren, inprobisazioaren eta esperimentazioaren artean dabil beti, eta proposamen artistiko harrigarria eta sailkaezina dakar.

"Joseba Irazoki" izenpean egiten dituen emanaldiekin batera, artista honek zenbait proiektu eta kolaboraziotan parte hartu du beste musikari batzuekin, eta zenbait proiektutan saioko musikari eta zuzeneko gitarra-jotzaile aritu da, besteak beste, honako hauekin: Nacho Vegas, Duncan Dhu, Mikel Erentxun, Rafa Berrio, Amateur, Petti, Rudiger, Rafa Rueda, Anje Duhalde...

Gainera, Atom Rhumba talde ospetsuko kidea izan da, eta birak eta kolaborazioak egin ditu nazioarteko artista nabarmenekin, besteak beste, Terry Lee Hale, Barrence Whitefield eta Damo Suzukirekin. Besteak beste, diskoetxe hauekin argitaratu du: Lucky kitchen, Creative sources, Glasvocht records, Important records, Con-V, Moonpalace records, Hirusta records, Bidehuts, Brown interior music eta Mascarpone Discos.

# Paisaje Lunar

## Manuela Valtchanova y Arte Nuevo

# Instalación. Arquitectura del espacio



La propuesta plantea construir un paisaje frágil y dinámico activado a través de cuatro organismos inflables con capacidad de palpitar con los movimientos del aire, responder a las vibraciones de las dinámicas escénicas y abrir un diálogo entre la accióndirecta,el público y el cielo. El Paisaje Lunar crece como un entorno sensible y fantasioso a través de los cuatro inflables hechos con dos tipos de tejidos, uno translúcido y ligero y el otro reflejante y resistente, buscando una coreografía continua entre destellos, transparencias, ligereza y abstracción.

El Paisaje Lunar deviene una ecología con gravedad propia que se despliega de manera autónoma al principio y al final de cada acción artística invitando a todos (público y artistas) a jugar y perderse en su campo antigravitacional. Así, todos podemos irnos de vacaciones a la luna a través del deseo de devenir destellos, sombras y reflejos en un paisaje «de eterna quietud, donde las sombras son más oscuras que la noche y el sol resplandece con un fulgor que ciega; tal es la Luna, un lugar de misterio y fantasía silenciosa» (Jules Verne, Alrededor de la Luna (Autour de la Lune, 1870).

Otros elementos que construirán el paisaje escénico será un sistema de plataformas de tableros de contrachapado pensados para cumplir con un doble uso: por un lado, a modo de bancos para el público, y por otro a modo de plataforma/ escenario para las actuaciones de los artistas. Este sistema está pensado para construir un elemento central y un sistema de plataformas perimetrales.

**MANUELA VALTCHANOVA**
Manuela Valtchanova. Arquitecta, investigadora y profesora. Su área de trabajo se basa en la transacción crítica entre política, espacio y afecto, con especial interés en las posibilidades de la acción directa. En su trayectoria profesional, realiza proyectos que abordan formatos arquitectónicos heterogéneos entre espacios escénicos y expositivos hasta intervenciones en el espacio público de diferentes temporalidades.

**ARTE NUEVO**
Arte nuevo es un espacio imaginario de creación artística concebido por Mikel Belascoain que nace fruto de la experimentación, la hibridación, el diálogo con otros/as artistas y la generación de iniciativas culturales colectivas.

# Ilargiko Paisaia

## Manuela Valtchanova eta Arte Nuevo

# Instalazio artistikoa. Espazioaren arkitektura



Proposamen honetan, paisaia hauskorra eta dinamikoa eraikiko da, lau organismo puzgarriren bidez aktibatua. Lau puzgarri horiek bi ehun motarekin eginak daude: bata zeharrargia eta arina, eta bestea islatzailea eta erresistentea. Airearen mugimenduek taupadaka jarriko dituzte, dinamika eszenikoen bibrazioei erantzunen diete eta elkarrizketa bat sortuko da ekintza zuzenaren, ikusleen eta zeruaren artean.Iargiko paisaia ingurune sentikorra eta fantasiazkoa da, eta etengabeko koreografia bat bilatuko da distiren, gardentasunen, arintasunaren eta abstrakzioaren artean.

Ilargiko paisaiak grabitate propioa duen ekologia dakarkigu, eta modu autonomoan hedatzen da ekintza artistiko bakoitzaren hasieran eta bukaeran; hala, guztiei (ikusleak eta artistak) dei egiten zaie grabitaterik gabeko eremu horretan jostatzera eta galtzera.  Horrela, denek izanen dugu aukera oporretan Ilargira joateko, paisaia horretan distira, itzal edo isla bilakatzeko nahiaren bidez; paisaia horretan zeinetan «betiereko gelditasuna baitago, non itzalak gaua baino ilunagoak baitira eta eguzkiak ñirñir itsugarriz egiten baitu distira; halakoa da Ilargia, misteriozko eta fantasia isileko toki bat» (Jules Verne, Autour de la Lune, 1870).

Beste elementu batzuk ere erabiliko dira paisaia eszenikoa eraikitzeko, hala nola plataforma-sistema bat, kontratxapatuzko taulaz egina, bi helburu dituena: batetik, ikusleen eserleku izatea eta, bestetik, artisten emanaldietarako plataforma edo eszenatokia izatea.

Sistema hori pentsatuta dago elementu zentral bat eta plataforma perimetralen sistema bat eraikitzeko.

**MANUELA VALTXANOVA**
Manuela Valtxanova. Arkitektoa, ikertzailea eta irakaslea. Bere lan-eremua politikaren, espazioaren eta afektuaren arteko transakzio kritikoan oinarritzen da, eta arreta berezia jartzen du ekintza zuzenaren aukeretan. Bere ibilbide profesionalean, arkitektura-formatu heterogeneoak lantzen dituzten proiektuak egiten ditu, antzezte- eta erakusketa-espazioetatik hasi eta behin-behinekotasun desberdinetako espazio publikoan egindako esku-hartzeetaraino.

**ARTE NUEVO**
Arte Nuevo irudizko espazio bat da, sorkuntza artistikokoa, Mikel Belascoainek sortua, esperimentaziotik, hibridaziotik, beste artista batzuekiko elkarrizketatik eta kultur ekimen kolektiboetatik.

# Colaboraciones adicionales
# Lankidetza gehigarriak

SONIDO / SOINUA: LUIS ROS
DISEÑO GRÁFICO / DISEINU GRAFIKOA: SILENCIO.ES
VÍDEO / BIDEOA: MIGUEL GOÑI
COMISARIADO / KOMISARIOA: MIKEL BELASCOAIN

ORGANIZA: MUSEO DE NAVARRA Y GOBIERNO DE NAVARRA
ANTOLATZAILEA: NAFARROAKO MUSEOA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

WWW.CULTURANAVARRA.ES/ES/9-SOLES
WWW.CULTURANAVARRA.ES/EU/9-EGUZKI

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra | AGENDA 2030

DE NAVARRA MUSEO NAFARROAKO MUSEOA